

CONTRAIMAGINARIOS (POSTPANDÉMICOS)

Errazagoa bada munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoarena baino (Jameson), arazo bat dugu, eta Contraimaginarios-ek arazo horretaz arduratzeko modu bat izan nahi du.

Bi kontzeptu bihurtuko ditugu, hain apokaliptikoak izan ez daitezen eta eraldatzaileagoak izan daitezten: Gentrifikazioa eta pandemia. Gentrifikazio-dinamikaren (edo higiezinaren espekulazioaren, edo higiezinaren indarkeriaren) eta Covid-19aren (edo, hobeto esanda, haren erregimen politikoaren, pandemiaren) dinamikaren arteko harremana ia kontu bera balitz bezala aztertuko ditugu. Oro har, gertaera historikotzat hartzen dugu birus bakoitzaren garapena, hedapena eta mutazioa. Bestalde, pandemia gobernantza-modu bat da, eta askotan erabili izan da mendebaldeko historia modernoan. Izurri beltza, disenteria, legenarra eta gripea kudeatzeko erabili zen, gaitz horiek arma hilgarriak izan baitziren, Espainia, Ingalaterra eta Frantziako inperioek kolonizatutako populazioen aurka erabiliak, gaur egun Amerika izenez ezagutzen dugun tokian. Pandemiak bio-boterearen funtsezko tresna izan dira beti. Gerra- eta konkista-armak izan dira pandemiak, hala Espainiako kolonizazioan nola gaur egungo bonba biologikoen kasuan. Laburbilduz, kontrol eta aldaketa sozialerako kategoria politiko modernoaren barruan sartzen dira. Horretan, oso modu garaikidean, bat egiten dute eredu kapitalisten berezko krisiekin, autobetetako profetia eta egiturazko berregokitzapenen une goren gisa, "agertzen diren" lurraldeetan.

2020an, mundu osoan espazio publikora sartzea eta batetik bestera igarotzea debekatu zuten neurriek, "konfinamenduek" eragin berezia izan zuten hirigintza globaleko gunerik trinkoenetan. Hiriguneetako biztanleen gaineko eragina, neurri handi batean, isilarazi egin da, sofan filmei edo streaming bidezko serieei begira, yoga egiten edo familiarekin eta lagunekin sareen bidez hitz egiten emandako orduetan oinarritutako kontakizun orokor baten azpian. Gure ikerketan eta aliatu kolektiboen esperientzia partekatuetan oinarrituta, argi geratu da Covid-19aren pandemian hiriko errealitatea ez dela agortzen kontakizun hegemoniko sinplistarekin. "Etxean geratzea" askok onartu ezin duten aukera izan da, —ez geratzearen ondorio zailak ukatu gabe—, hori ere pribilegio bat izan da.

"Frontera urbana, la ciudad revanchista" (Neil Smith) lanean, argi azaltzen da, gutxietsitako auzo periferikoak gentrifikatze prozesuan, sistematikoki jotzen dela horko biztanleen gehiegizko kriminalizaziora. Espazio publikoaren desertifikazioak eragindako hiri-panoptikoan, gorputz erasotzaileek beren burua sakatzen dute presentzia hutsarekin, kontrolak (polizia eta bizilagunena) okupatutako espazioan, eta, kriminalizazioa jasaten dute. Ikuspuntu zabalago batetik, espazio publikoaren gobernantza, Europan eta hiriguneetan behintzat, kategoria kolonial nekropolitikoak (Mbembe) irudikatu eta antolatzen ditu, boterearen matrize koloniala (Quijano) erreproduzitzen. Ildo horretan, eta espero zitekeen bezala, pandemiak aukera eman du gorputzak arautzen dituzten eta dagoeneko hain ezagunak diren kategoria modernoaren inpaktua erradikalizatzeko. "El futuro empieza ahora - De la pandemia a la utopía" (De Sousa) liburuan, soziologo portugaldarrak Covid-19aren garapenari buruzko azterketa erabiltzen du, biktimak «hautatzeko» modua zehaztu zuten kategoria sistematiko horietan sakontzeko. Kapitalismoaren aliatu pribilegiatu gisa, hiriak eta bere espazialtasunak beren zeregina bete zuten: kolektiborik prekarizatuenei neurri gabe kaltea hartu zuten, arraza, genero eta klasearen interseksionalitate kolonialaren arabera (Crenshaw / Lugones).

Contraimaginarios (postpandemicos)-ek ez ditu teoria eta praktika bereizten. Horregatik, hurrengo lerroetan, trantsizio metodologiko bat proposatzen dugu pentsamendu kokatu batera jotzeko (Hallaway), senti-pentsa-egin batean adarkatuta (Escobar).

Bizi izandako errealitateak agerian utzi, eta oroimen kolektibora ekarri ahal izateko, Contraimaginarios (postpandémicos) ahalegindu zen aliatuen sare bat ehuntzen, pandemia honetan

isildutako narratibak (Puig Punyet) partekatu ahal izateko (eztabaidetan, irriti-podcastetan, testuetan edo lan bisualak ekoizten), bakan batzuk bakarrik aipatzeagatik, larrialdiak artatzea (arrazakeriaren aurkako zainketen sarea), lantokiak, etxegabetzeen aurkako bizilagunen borrokak eta eztabaida akademikoak (Agamben-Bifo). Pandemiaren iraganeko eta etorkizuneko istorioak berreskuratzen ditugu, historikoak eta zientzia fikziozkoak ere bai (Butler-Machado), eta ikusten dugu nola ematen duten bide egungo pandemia egon dadin, eta hori ere diskurtso gisa ulertzen dugu (Jimenez). Historiarekin bat ez datozen istorioak partekatzeko deia egiten dugu, ikusteko zer errepikatzen den, zer aldatzen den, eta zer gal dezakegun bidean, arretarik jartzen ez badugu. Adi gaude, zero pazienteei, baztangadun manteei (De Sousa) eta hilketaguneetako ingurumen-toxikotasunari (Guzmán) buruz xuxurlatutako istorioak entzuteko.

Iruditeria hegemonikoak desmuntatzen ditugu eta kartzela epistemologikotik (Grosfoguel) kanpo begiratzen dugu; dauden kontraimaginarioei eta oraindik existitzen ez direnei erreparatzen diegu. Kontakizun ofizialarekin bat ez datorren irudi bakoitza zaintzen dugu (Steyerl-Cusicanqui), shockaren doktrina eta hondamendien ekoizpena eteten duten soinu eta hitz bakoitza (Klein). Baliabideak kolektibizatzen ditugu irudi kontrahegemonikoak (zentzu zabalean, soinuak eta hitzak ere bai) sortzeko. Argazkiak egin eta beste batzuk lapurtzen ditugu, marraztu, kantuak deskargatu, musikak konposatu, liburuak azpimarratu, poemak idatzi, beste batzuk kopiatzen ditugu kolektiboki.

Zer da guretzat ikertzea? Kontrolatu ezin ditugun ekoizpen-moduak saihesten ditugu: Inpaktu-indizeak eta indexazioa, metadatuak eta analisi kuantitatiboa. Horren ordez, bi kalitate-irizpide eskaintzen ditugu: lerketa senti-pentsa-egin bat izatea (Escobar), eta benetan kolektiboa izatea. Gure ahaleginak bideratuta daude aldi baterako egoerak zabaltzera, aldi baterako lankideekin sentimendu-pentsamendu-ekintza hori gerta dadin eta partekatu ahal izan dadin. Testu honen ondorioei begira, Ezagutza kolektiboko espazioak deituko diegu.

Ezagutza kolektiboko espazioak: irratia

Contraimaginarios podcast-irratia, hiru atal grabatuta ditu dagoeneko eta beste bat prestatzen ari da. Zuzenean grabatzen den irriti bat da, musika eta soinu-piezekin gatzozpindutako elkarrizketak egiten dituena. Lehen eskuko esperientziak eta zabaltzen dizkiguten hausnarketak partekatzen ditugu, esamesa politiko global batean bezala. Hiri gentrifikatuan aurkituko ditugu mugek kriminalizatutakoak, estatuek industria farmazeutiko handiari saldutakoak, psikoaktibo legalekin drogatutak, beren komunitatetik erauziak, kontraimaginarioek kolpatuak, bidezkoa dena defendatzeagatik erretakoak. Eta prozesu hilgarri horiek gelditzeko errezetak partekatzen ditugu.

Ezagutza kolektiboko espazioak: jokia

Inoiz jolastu eta zerbait ikasi baduzu, gurekin bat egin dezakezu. Hori izan zen jokia ezagutza kolektiborako gune gisa proposatzeko abiapuntua. Gure hipotesia da jokoan ezagutza kolektiboa sor zitekeela, ikasgelan baino bazterkeria gutxiagorekin. Jokorako espazioa/denborak proposatuz eta gero jokoan nola egon garen eta amaitzean nola geratu garen partekatuz, asko ikasi dugu; adibidez, eztabaida lehiakor bat errespetuzko entzute-gurpil bihur daitekeela, "jokatu dugunez lagunak garelako". Era berean, ikasi dugu joko moduan gertaera traumatikoak berpizteak murriztu egin dezakeela gudan duen boterea, eta joko modura proposatzeak saihestu dezakeela kontakizun hegemonikoak ezartzen digun autozentsura zinikoa eta estugarria (munduaren amaieraren eta kapitalismoaren amaieraren kontakizunak).

Gentrifi-què

Gentrifi-què jokoa Memòria, Lluita i Resistència kolektiboak garatu zuen pandemiaren dinamika eta ondorioei buruzko herri-hezkuntza egiteko eta auzo-borroka eta -antolaketarako nahiak aktibatzeke. Jokoak proposatzen digu auzo desberdinak dituen hiri bateko biztanle bat irudikatzea, biztanle desberdin bat, sisteman balioa ematen dioten ezaugarriak dituen (kapitalista arraziala zisheterosexista kapazitista...). Hortik aurrera, jokalaria saia daitezke osasuna, kultura, lana eta elikadura eskura izaten, hori ez baita erraza taula tranpati eta eromenezko batean. Gentrifikazioa geldiarazteko, sistema gelditu behar da, eta joko honetan sistemak aldaketa txikiak sortzen ditu etengabe; horiek modu desberdinean eragiten diote jokalaria bakoitzari, eta ekintza kolektiboa eta bizi-baldintzen benetako eraldaketa zailtzen dute. Amaitzean, eztabaida sortzen da, eta berehala aztertzen dugu partidaren nola jokatu dugun bizitza-esperientzietara eta desobeditzeko moduari buruzko gogoetetara. Contraimaginarios-ek beste geruza bat gehitzen dio joko honi, Pandemia izenekoa: Kapitalaren eta Estatuaren makila ezkutua erakusten du, erregimen liberal kapitalista militarizatzen eta farmakologizatzen duena. Gogoan dugu pandemian gentrifikazioa ez zela gelditu, eta desberdintasuna ez zela gutxitu. 2022an, Gentrifi-què jokoaren hiru partida proposatu genituen Santa Mònican, eta beste bat La Capellan, Espai Avinyó-rekin lankidetzan. Behin jakinda non gauden eta ez dugula horrela bizi nahi, nora joango gara?

Zaintza eta abar / espazio publikoa okupatzea

Hiria eta bere gentrifikazio-dinamikak (kapitala bizitzaren kontra) taula batean jokatu ondoren Gentrifi-què jokoari esker, kalera jaitsi behar dugu. Gainera, Bartzelonako Raval auzoko arte-zentro batean gaude: dena gertatzen ari da gure aurrean. Aztertu baino gehiago, orain erronka jotzeko beharra sentitzen dugu. Etcétera kolektibo argentinarra gonbidatu genuen, Santa Mònica inguruko espazio urbano, ez-publiko eta pribatizatua modu ludikoan iraultzera. Pandemiaren mozorroto gintuzten jantzi babesleekin, minions itxurarekin eta *teng jokoaren marrazkiak zituzten pankartekin (irudimen politikoko joko kontra-apokaliptikoa, gaur egun garatzen ari dena). Pasieran eraman gintuzten pilula erraldoiekin, "positiboa!" "negatiboa!" "kontuzkontuzkontuzkontuz" oihuekin. Ibilaldiak geldialdia egin zuen Bartzelonako kudeaketa higienistaren egoitza enblematiko batzuetan, zeinak obsesionatuta zeuden birusak eta, orobat, elementu subertsiboak ere geldiaraztearekin. Gau surrealista-situazionista batean, erronka bota genien Lizeoko Antzokiari, Ospitale Zaharrari, Gaixotasun Tropikalen Zentroari, eta gurekin elkartzen ziren, argazkiak egiten edo irainak botatzen zizkiguten oinezkoiei. Zer izan ote zen, ezagutza kolektiboa edo katarsia, tiragailua edo hazia? Oraindik ez dakigu, eta horrek poztzen gaitu jabeak ez delako.



David Mirásen pintura, Contraimaginarios Pandémicos-en ikerketaren hainbat unetan oinarritua, bereziki 2022ko azaroko Etcétera kolektiboaren "Cuidado!" ekintzan.



Gentri-fi-què partida Santa Mònica, 2022ko ekaina.



Etcétera kolektiboaren "Cuidado" ekintza Bartzelonako Ramblan, 2022ko azaroan.

CONTRAIMAGINARIS POSTPANDÈMICS:

Contraimaginari Postpandèmic 2022an eta 2023an Santa Mònica arte-zentroko ikerketa-talde egoiliarretako bat da. Jesús Arpal Moyak (La Caníbal kooperatiba), Nancy Garínek eta Antoine Silvestrek osatzen dute. 2022. urtean, iruditeria alternatiboak entzun, aztertu, hedatu, problematizatu eta hipotetizatu zituzten, Covid-19aren krisiaren eta pandemia luzearen (pandemiaren ondokoaren) irudikapenaren esparruan izandako kontakizun ofizialetan (kultural, sozial eta politikoetan).

Pandemiak eragindako joan-etorriak, arrakalak eta doikuntza ugariak interesatzen zaizkie, izan litezkeen etorkizunak indartuko dituzten iruditeria politiko berrien argi gisa. Zer desberdintasun dago pandemiaren (kontakizun iraunkor gisa) eta Covid-19aren (gertakari historiko gisa) artean? Zer leku dago pandemiaren kontakizuneari historia(k), osasuna eta jakintza autokudeatzeko? Postcovid, precovid, anticovid, subcovid, supercovid, simcovid? Testuinguru pandemikoan zabaldutako zer iruditeria geratzen da edo desagertzen ari al dira memoria kolektiboetatik? Ezabaketa horretan, aurkitu ditzakegu aldaketa batzuk tokiko erregimenaren eta munduko hegemoniaren arteko dialektikan? Ikerketa artistiko bat da, eta ez akademikoa; beraz, taktika desberdinak txandakatzen dituzte, sentitu, pentsatu, partekatu, jarduteko. Astelehenetan biltzen dira 17:00etatik aurrera Mòniques del Santa Mònica gunean.